



TREBAKUNTZA 2015-04: HERRI IZENAK (NOLA DEKLINATU...)

OHARRA: izartxoaz eta letra etzanez idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. * **Berriatuako** alkatea berandu iritsi zen bilerara.
2. * **Busturiako** Hirigintza batzordeak etzi hitz egingo du gai horretaz.
3. * Salaketa bat heldu zaigu **Basaburuatik**, hizkuntza eskubideen inguruan.
4. * Udaleko langileek trebakuntza ikastaroak jasoko dituzte **Azpeitin**.
5. * Uholdeen ondorioz, kalte handiak izan ditu **Etxarri-Aranazen** dagoen kanpinak.

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

Euskaltzaindiaren arautik abiatuta, UEMAko herrien zerrenda hau osatu dugu, herrialdeka ordenatuta, argiago ikus dezazuen zelan deklinatzen den bakoitza. Lehen zutabearen herriaren euskal izena ageri da, bigarrenaren izen ofiziala, eta hirugarrenaren herritarra:

Ajangiz Ajangiz ajangiztar
Amoroto Amoroto amorotar
Arteaga Arteaga arteagar, arteagaztar
Atxondo Atxondo atxondar
Aulesti Aulesti aulestiar
Bermeo Bermeo bermeotar
*Berriatua (-a) Berriatua berriatuar
*Busturia (-a) Busturia busturiar
Gatika Gatika gatikar
Gizaburuaga Gizaburuaga gizaburuagar

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Izurtza Izurtza izurtzar
Lekeitio Lekeitio lekeitiar
*Mallabia (-a) Mallabia mallabitar
Mañaria Mañaria mañariar
Markina-Xemein Markina-Xemein markinar, xemeindar
Munitibar Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz munitibartar
Muxika Muxika muxikar
Ondarroa Ondarroa ondarroar
Otxandio Otxandio otxandiar
Aramaio Aramaio aramaioar

* Gogoratu behar da **Berriatua, Busturia eta Mallabia** izenen bukaerako *-a* artikulua dela. Hortaz, udalen izen osoak erabiltzean honakoa da bidea: *Berriatua, Berriatuarekin, Berriatuan...*; *Busturia, Busturiarekin, Busturian...*; *Mallabia, Mallabiarekin, Mallabian...* Baina *Berriatuko, Berriatutik, Berriatura...*; *Busturiko, Busturitik, Busturira...*; *Mallabiko, Mallabitik, Mallabira...* Era berean, izen honek bere azken *-a* galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean; adibidez: *Berriatu maitea, Berriatu osoan, Gure Berriatu hau...*; *Busturi maitea, Busturi osoan, Gure Busturi hau...*; *Mallabi maitea, Mallabi osoan, Gure Mallabi hau...*

Aduna Aduna adunar
Aizarnazabal Aizarnazabal aizarnazabaldar
Alegia Alegia alegiar
Alzaga Alzaga altzagar
Altzo Altzo altzotar
Amezketeta Amezketeta amezketar
Anoeta Anoeta anoetar
Antzuola Antzuola antzuolar
Arama Arama aramar
*Azpeitia (-a) Azpeitia azpeitiar
Baliarrain Baliarrain baliarraindar
Beizama Beizama beizamar
Berastegi Berastegi berastegiar
Bergara Bergara bergarar
Deba Deba debar
Elgeta Elgeta elgetar
*Ezkio-Itsaso Ezkio-Itsaso ezkiotar, itsasoar
Gaintza Gaintza gaintzar
Gaztelu Gaztelu gazteluar
Getaria Getaria getariar
Ikaztegieta Ikaztegieta ikaztegietar
Irura Irura irurar
Itsasondo Itsasondo itsasondoar

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99

Leaburu Leaburu leaburuar
Lezo Lezo lezoar
Lizartza Lizartza lizartzar
Mutriku Mutriku mutrikuar
Oiartzun Oiartzun oiartzuar
Orendain Orendain orendaindar
Orexa Orexa orexar
Orio Orio oriotar
Segura Segura segurar
Tolosa Tolosa tolosar
Usurbil Usurbil usurbildar
Zaldibia Zaldibia zaldibiar
Zarautz Zarautz zarautzar
Zerain Zerain zeraindar
Zestoa Zestoa zestoar
Zumaia Zumaia zumaiar

* Gogoratu behar da **Azpeitia** herri-izenaren bukaerako –a artikulua dela. Hortaz, udalaren izen osoa erabiltzean honakoa da bidea: *Azpeitia, Azpeitiarekin, Azpeitian...*; baina *Azpeitiko, Azpeititik, Azpeitira...* Era berean, izen honek bere azken –a galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjetiboa daramanean; adibidez: *Azpeiti maitea, Azpeiti osoan, Gure Azpeiti hau...*

* Herri batek euskaraz izen bat eta erdaraz beste bat duenean, bi izenak elkarrekin erabili behar direnean zehar-marra (/) baten bidez bereizirik jarriko dira, *Arrasate / Mondragón* modura. Marratxoa (-), ordea, bi herrik edo gehiagok administrazio elkarte bat osatzen dutenean erabili behar da, esaterako **Ezkio-Itsaso** edo **Markina-Xemein**.

Araitz Araitz araitzar
Arantza Arantza aranaztar
Arbizu Arbizu arbizuar
Areso Areso aresoar
*Basaburua (-a) Basaburua basaburuar
Baztan Baztan baztandar
Bera Bera beratar
Etxalar Etxalar etxalartar
*Etxarri Aranatz Etxarri Aranatz etxarriar, etxarriaranaztar
Goizueta Goizueta goizuetar
Igantzi Igantzi igantziar
Larraun Larraun larraundar
Leitza Leitza leitzar
Lesaka Lesaka lesakar

* Euskaltzaindiak 141. arauan zehazten duen bezala, izenen amaieran ageri den -a hori ez da berezkoa izaten, artikulua baizik eta, ondorioz, izena

U d a l e r r i E u s k a l d u n e n M a n k o m u n i t a t e a

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99

deklinatzean artikulua hori zenbait kasutan galtzen da. **Basaburua** izena erabiltzean, honakoa da bidea: *Basaburua, Basaburuarekin...*, baina *Basaburuan, Basaburuko, Basaburutik, Basaburura...* Era berean, izen honek bere azken -a galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean, adibidez: *Basaburu maitea, Basaburu osoan, gure Basaburu hau...*

* Gogoratu behar da **Etxarri Aranatz** izenaren bukaerako txistukaria frikari bihurtzen dela hainbat kasu marka hartzean. Hortaz, deklinatzean, honakoa da gomendatzen den bidea: *Etxarri Aranatz, Etxarri Aranatzen, Etxarri Aranatzekin...*, baina *Etxarri Aranazko, Etxarri Aranaztik...*

Beraz:

1. **Berriatuko** alkatea, elurteak eragindako ondorioen erruz, berandu iritsi zen bilerara.
2. **Busturiko** Hirigintza batzordeak etzi hitz egingo du gai horretaz.
3. Salaketa bat heldu zaigu **Basaburutik**, hizkuntza eskubideen inguruan.
4. Udaleko langileek trebakuntza ikastaroak jasoko dituzte **Azpeitian**.
5. Uholdeen ondorioz, kalte handiak izan ditu **Etxarri Aranatzen** dagoen kanpinak.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin:

Telefonoz: 94-6279195 (Ibon)

Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.eus (Ibon)

Hurrengora arte!

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99